

## **FUNTZESKO JARDUERAK**

Gure proiektuak funtzionatzeko hainbat jarduera garrantzitsu egin behar ditugu. Jarduera hauek laguntzen digute gure balio-proposamena sortzen, bezeroengana heltzen eta proiektua martxan jartzen.

Ekoizpena: Proiektuaren funtsezko jarduera da. Hau da, ikasleen ongizaterako espazioak diseinatu, prestatu eta muntatu behar ditugu, behar bezala funtzionatzeko. Hori da gure negozioaren oinarria eta ezin dugu beste batzuek egin, gure ezagutza eta know-how delako.

Arazoak konpontzea: Bezeroek arazoak izanez gero, gure taldea zuzenean arduratuko da haiek konpontzeaz. Hori garrantzitsua da bezeroekin harreman ona mantentzeko eta proiektua arrakastatsua izan dadin.

Plataforma eta sareko jarduerak: Gure webgunea eta online denda kudeatu, mantendu eta sustatu behar ditugu. Horrela, ikastetxeek informazioa ikusi eta eskaerak egin ahal izango dituzte modu errazean, eta gure zerbitzua ezagutuko dute.